

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

SEGURTASUN SAILA

571

AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 23koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez Segurtasun Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritari eskuordetzen baitzaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratuko langileen enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri orokorretan esleitutako eskumenak (prozesu horiek 2022ko abenduaren 5eko Aginduaren bidez onartu ziren).

Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 4. artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 6.2.f) artikuluekin lotuta, ezartzen du Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuari dagokiola Ertzaintzaren zerbitzu laguntzaileei atxikitako langileak kudeatzea.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko Aginduaren arabera (2022ko abenduaren 30eko EHAA, 249. zk.), zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratuko langileentzat gordetako lanpostuen enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautzeko oinarri orokorrak, deialdia egin duen organoari esleitzen zaizkio prozedura ebazteko funtzioak eta eskumenak.

Bestalde, Segurtasun Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 12. artikulua ezartzen duenez, Giza Baliabideen Zuzendaritzari dagokio Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratuko langileak kudeatzea; zehazki, e) apartatuaren arabera, honako hauek dagozkio: lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-proben oinarriak, programak eta edukia prestatzea, proba horien epaimahai kalifikatzaileak izendatzea, eta hautaketa-prozesua antolatzea eta kudeatzea.

Ildo horretan, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 39.4 artikulua ezartzen du sailburuek beren eskumenak zuzendariei eskuordetu ahal izango dizkietela. Halaber, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9. artikulua aurreikusten duenez, administrazio publikoetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzan eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira, nahiz eta bata bestearen mendekoa ez izan, edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden organismo publikoak edo zuzenbide publikoko entitateak badira. Aurreikuspen bera jasotzen da Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 25. artikuluan.

Komenigarria da zehaztutako prozesua arintzeko neurriak hartzea, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premia neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitako epeetan gauzatuko direla bermatzeko. Hori dela eta, egokitzat jotzen da eginkizun eta eskumen horiek Giza Baliabideen Zuzendaritzari eskuordetzea, zuzendaritza hori baita egonkortze-prozesuak eragintzepean hartzen dituen lan-kontratudun langileen kudeaketaren arduraduna.

Horregatik, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 39.4 artikuluekin bat etorri, eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 4. artikulua esleitzen dizkion eskumenak kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Giza Baliabideen zuzendariari eskuordetzea Eusko Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko Aginduaren bidez (abenduaren 30eko EHAA, 249. zk.) onartutako deialdiaren oinarri orokorretatik eratorritako eginkizun edo eskumen guztiak, organo eskudunari dagozkionak eta apartatu hauetan adierazten direnak:

Baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa eskatzea (8.2.7 apartatua).

Onartutako eta baztertutako behin-behineko eta behin betiko zerrendak argitaratzeko agintzen duen Ebazpena (11.1 eta 11.2 apartatuak).

Prozesua gainditu dutenen behin-behineko eta behin betiko kalifikazioen eta eskainitako lanpostuen zerrendak argitaratzeko agintzen duen Ebazpena (12.3.4 apartatua).

Izangaien behin betiko kalifikazioa ebatzi eta argitaratzea (13. eta 13.1 apartatuak).

Hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko lanpostuen behin-behineko eta behin betiko zerrenda ebatzi eta argitaratzea (15. apartatua).

Hautatutako pertsonen zerrenda Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari helarazteko Ebazpena (17. apartatua).

Bigarrena.– Inguruabar hori jaso beharko da eskuordetze honen ondorioz ematen diren ebazpen eta egintzetan.

Hirugarrena.– Agindu honek sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 23a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.